

Izar Agirretzek irabazi du Motxian eby SMS lehiaketako saria



2009ko Errenta
Aitorpenaren
kanpaina abian da

Errenta Aitorpena egiteko garaia heldu da. Herritar batzuk, autolikidazio proposamena jasoko dute eta besteek, Ogasuneko bulegoetara edo bankuetara jo beharko dute errenta egitera. Nahi izanez gero, bulego batzuetan, euskaraz egin daiteke errenta aitorpena. /4-5

"jrr skin sku zr zkrk srbldn t zkr sku zr skink srbldn, hr dz nr bsarkdrik gxen", hau da Buruntzaldeko Udalek sustatutako *Motxian eby* SMS lehiaketako Lasarte-Oriako mezu garaila.

Horrelako mezueta ohi-tuak ez daudenentzat, "Jarri eskuin eskua zure ezkerreko sorbaldan eta ezker eskua zure eskuin sorbalda, hor duzu nire besarkadarik goxoen" dio goiko geroglifikoak.

Landaberri BHI Institutuko Izar Agirretzek idatzitako mezu horrek lortu du lehiaketako saria, ukitzeko pantaila duen sakelako telefonoa.

Eta, azteazkenean, Manuel Lekuona kultur etxean egin zen sariaren banaketa. Rikardo Ortega Euskara Batzordeko lehendakariaren eskuetatik jaso zuen Izarrek bere saria. Eta, "benetan, niretzat zaila da mezu horrek zer dioen jakitea," aipatu zuen Euskara Batzordeko buruak.

Ekimena

Buruntzaldeko Udalek antolatutako lehiaketa honek gazteen arteko komunikazio inforaletan euskara erabiltzea bultzatu nahi du.

Honela, Adur Larrea komikigilearen saioetan jasole izan diren Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnietako DBHko ikasleek parte hartu dute lehiaketan.

Saio hauetan euskarak, teknologia berrien ondorioz, hau da Internet, txatak edo segapotoak, aldaketak bizi dituela eta harremanetarako modu zahar eta berria daudela azaldu zien gazteei.

Horretaz gain, lehiaketari buruz hitz egin eta gaia azaldu zien, "gustuko duzun horri bidaliko zeniokenez mezu," idatzi behar zutela.

Eskualdeko orrialdera, 100 gaztek 240 mezu bidali dituzte. Buruntzaldeko herri bakoitzeko onena aukeratu da



Ricardo Ortega eta Izar Agirretxe, saria, sakeleko telefonoa, eskuan duela.

eta irabazle bakoitzak sakelako telefonoa jaso du sari gisa.

Lehiaketako sarituak zeintzuk diren jakiteko eta haien

mezuak irakurri ahal izateko www.buruntzaldea.org orrialdera jo eta bertan dago guztia argitaratu. •

Ipuinaren bidez, lirika zer den ikasten

Ba al dakizue zer den lirika? Horrela hasi zen astelehenean Manuel Lekuona kultur etxean gaztetxoentzako Kutxaren laguntzaz antolatutako kontzertu pedagogikoa. Ume eta guraso ugari bildu zen *Euskal Ipuin Bat* kontzertuaz gozatzera.

Azalpen batzuen ondoren, ordu betez, Aita Donostiak harmonizatutako euskal-kanten musikaz lagundutako antzezlan antzun zuten.

Honela, Lurbira Opera Talde Lirikoak eskainitako kontzertuari esker, lirika zer den ikasi zuten bertaratutakoek. •



UDALA/3

Iradokizunak egiteko sistema aurkeztu da

EUSKARA/3

II. Udaltop-en nerabeak eta euskara izan dituzte aztergai

KIROLA/6

Ges aseguruak eta Ostadarrek hitzarmen berria sinatu dute

M. Berasategi

Kafeak



Beti dago aukera
kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA OABRAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a....

KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA

Neure kabuz



Olatu talka?

Olatu Talka iragartzen dute asteburu honetarako gure herri ondoko hiriburuan. Bai, Europako Kultur Hiriburu izateko lehia ari den horretan. Bat-batean, 100 kultur emanalditik gora hiru egunetan. Hori tripakada! Herriko plazara joan eta hiru egunetan 100 solomo jatea bezalako, ezta? Mozoloen iparra den Guinness Liburuaren agertzeko ondo, baina urdailarentzako, ño...! Bihotzere! Ba, kultur betekadekin antzeko padezimientu: zarta sano bai, osasun kulturala ordea... makal!

Hor ari dira, hala ere, hedabideetan agertzeko irrikan, Kultur Hiriburuaren izendapena lortzeko lehia. Horretan krisirik ez. Horretarako badago dirurik. Zure herriko edo auzoko kultur ekimena aurrera ateratzeko erriak egin beharko dituzu, baina kulturako Guinness-etan argazkitxo bat lortzeko... hor ez da diru eskasia nabaritzen.

Galderak piltatu egiten dira, noski, eta argal samar izan zutabe hauek. Izendapen hori tartean egongo ez balitz, izango genuke ikuskizun horietatik gozatzeko aukera? Ikusle eta partaide horiek guztiak zer dira, marketin baten beharrezko apaingarriak? Hori da eredu? Kultura bera marketinaren tresnatzat hartzen duena?

Ez dut uste hori bidea denik, kultur gintzan ere auzolana da bide jatorrena. Bertsolariei zor diegu irakaspen hori.

A! Gaur Liburuaren eguna dela aprobetxatu eta libururen bat erosi eta irakurri. Edo ez erosi baina irakurri. Irakurri ez denborapasan bakarrik, nahiz eta denborapasan ere bai, baina irakurri-irakurri.

Pablo Barrio

Zorion-agurrak



Beatrix

Hogeita...prest ospatzeko? Zorionak... Belarrik tiratzean... ta muxu bat zuretako!!!!



Javi

Zorionak realista! Bazkari ona prestatu. Muxu asko eta ondo pasa! Etxekoan partetik.



Migueltxo

Zorionak! Elenova, Anuska, Isabelnaia, Sarapova, Susunova, Jorjoski, Davidov eta Rafiski.



Enara

Zorionak eta 8 muxu handi gurasoen, ahizparen, aiton-amonen eta Maiteren partetik.



Gorka eta Marco

Zorionak bikote zuen urtebetzearengatik! Familia guztiaren partetik etxeko bi mutilentzat!



Salma

Zorionak bihotza pasa da urte bete. Muxu bat gurasoen partetik.



Jon eta Ander

Zorionak zuen hirugarren urtebetetzean, aupa erreala eta muxu mila!!!



Lur

Zorionak bihotza, zein ondo pasa dugun zure 6 urtetxoak ospatzen! Segi horrela politta!



Leire eta Aiora

Zorionak apirilko bi loretxoei! Muxu handi bat denon partetik.

Heriotzak

Jesús Casado Nuñez, apirilaren 18an
Eliseo Abad Barrio, apirilaren 16ean 88 urte zituela

Coro Molina Arruti, apirilaren 15ean 59 urte zituela
Naxto López de Uralde Arakama, apirilaren 14ean



Azoka txikia

Ekaintza inmobiliarioak

• Etxe bat saltzen da Alesancon (Ezcarayren ondoan) lorategiarekin, igerileku eta gune komunak. Harremanetarako telefonoa 676 910 566.

• Lokala alokatzen da, 35 m²koak Zabaleta auzoan. Tel.: 686 234408

• Pisua salgai Iruran. 3 gela, komuna, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Bero-gailua eta armairu enpotratuak ditu. Tel.: 695 785 153.

• Gela bat alokatzen da Lasarte-Orian etxe partekatu batean. Harremanetarako telefonoa: 600 612 085.

Salerosketak

• Salgai autorako 4 hagu (llanta) 195/ 50r 15 neurrikoak. Tel.: 638 421 713.

• Halo III edizioko XBOX 360a saltzen dut zazpi joko eta HMI kablearekin. Hau guztia, 100 euro-tan. Harremanetarako zenbakia, 647 254 082.

Oharrek jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com • Tel.: 943 366858

• Txirinda, txistua eta 50 litroko akuario bat saldu nahi ditut. Harremanetarako zenbakia, 943 372 752 (Gauze deitu)

Lan-ekaintzak

• Gitarra elektrikoko irakaslea behar da etxean klaseak emateko. Harremanetarako zenbakia, 661 011 946.

Lan-eskariak

• Pelukeriako produktuen sorta bat salgai daukat, prezio onean. 697906570

• Euskara, lenguaie, ingelesa eta hanbat gaietako klase partikularak emango nituzke. Harremanetarako zenbakia, 693 601 222.

• Pertsona adinduek zaintzeko edo orduka lan egiteko pertsona eskaintzen da. Harremanetarako telefonoa, 639 593 039.

Guardiak

Astelehena, 26

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371 151

Astearte, 27

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361 774

Asteazkena, 28

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361 529

Osteguna, 29

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Ostirala, 23

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Larunbata, 24

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Igandea, 25

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Telefonoak

Udala

Erregistroa943 376055
Euskarako
Zerbitzua943 376184
Kirolegia943376182
Kulturetxea943376181
Zerbitzu Sozialak ..943376179
KIUB943361605
Udal eskalgia ...943361621
Obrak eta
zerbitzuak943 376180

Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa ...943 007960
DYA943 464622
Gurutze Gorria ...943 363953
Udaltzainak943 362442
Ertzaintza943 288888
SOS Deiak112

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Herritarren partehartzea sustatzeko sistema berria aurkeztu du Udalak

TXINTXARRI

Irakozkizunak eta kexak egiteko orrialdea aurkeztu zuen alkateak astelehenean eskaini zuen prentsaurrekoan. Herritarren parte hartzea sustatzeko ekimena da hau eta ez da Udalak aurrera eramango duen bakarra. Izan ere, herriko elkarteekin bilduko da alkatea bera haien beharrei buruz jakiteko.

“Herritarrek kalean geratzen gaituzte bere kexak eta proposamenak egiteko, baina asko ez dira hurbiltzera ausartzen. Erregistroa oso formala iruditzen zitzaigun gauza hauetarako, eta horregatik beste bide bat sortu dugu,” azaldu zuen Jesus Zaballos alkateak.

Sistema berria iradokizun orrialdea da. Honetan herritarrek haien kexak, txorko bat gaizki dagoela adibidez, idatzi eta Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar dute.

Eskutiz hori dagokion sailari bideratuko zaio eta arduradunak erantzungo duela, aurreratuko duen.

Irakozkizun orrialdea Udaleko harreraren egongo da eskuragarri, baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Hala ere, egun hauetan etxeetara iritsiko dela eta noizbehinka orrialdearen



Jesus Zaballos alkateak aurkeztu zuen iradokizun eta kexen sistema berria.

bidalketak egingo direla, azpimarratu zuen alkateak,

Partehartzea

Era honetara, herritarren partehartzea sustatu nahi du Udalak.

“Herriaren kudeaketa guztien artean egitea da helburua. Herritarrek partehartzeko bideak bilatu behar dira,” adierazi zuen alkateak.

“Hasieran herritarrei kostako zaie, baina ohitura sortu behar da. Izan ere, jarraipena emango zaio egitasmoari,” aipatu zuen.

Elkarteekin bilerak

Era berean, elkartei gerturatzeko eta beren kezkek eta

proposamenak zuzenean eza-gutzeko, alkatea banan-banan bilduko da udalerriko talde ezberdinekin.

Aste honetan, bizilagun elkarte batzuekin bildu da eta aurrerantzean, kiroletako elkarteak, kulturakoak eta elkarte sozialekin hitz egingo du.

Horieta gehienekin dagoeneko lan egin badu ere, Gazteria eta Festetako eta Kiroletako sailetan, lehenengo harreman zuzena izango da alkate bezala eta elkarte bakoitzaren egoitzara joango da.

Bertan beren kezkek eza-gutuko eta lan ildo jarrai bat sortzeko oinarriak jarriko direlarik.

Nerabeak eta euskara aztergai Udaltop-en

Euskal Herriko Euskara Zerbitzuetako teknikoak Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian bildu dira aste honetan, asteazken eta ostegunean.

Iparraldeko udaletako euskara teknikariak gonbidatu dituzte aurten II. Udaltop-en parte hartzera eta sortu berriak diren zerbitzu hauen lehenengo urratsen berri izan dute teknikariek.

Honetaz gain, nerabeen aisian euskara nola sustatu aztertu dute.

Horretarako, nerabeekin lanean jardun diren udal zerbitzuek eta euskara elkarteek, Ttakun K.E.-k esate baterako, haien esperientzia azaldu dute.



Hitzaldi eta mahai inguruak eskaini zaizkie euskara teknikariek bi egun hauetan.

Era berean, gazteen kontsumoa eta teknologia berrien eragina aztertu dira hitzaldi eta mahai inguruen bidez.

Ondorio ugari atera dituzte Euskara Zerbitzuetako teknikariek eta orain hausnarketa garaia da.

AISIA

Amaraun Jaialdia lekuz aldatzen da

Ezti, Lur eta Marko Amaraun klubeko lagunak Loidi-Barreneko frontoian, kiroldegi ondokoan, egongo dira larunbatean.

Hamaika abentura biziko dituzte hurrek Amaraun Jaialdian. Goizeko 11:00etatik aurrera, puzgarriak, tailerrak, bazkideen bazkaria eta, arratsaldean, Txorro eta Morroren *Gramola* dantzaldi berezia.

2002 eta 2004 urte bitarteko bazkideak daude gonbidatuak bazkari berezira, izan ere, doan da. Bazkarian izena emateko azken eguna gaur da. Anima zaitzete eta hurbildu Ttakuneko bulegora edo deitu 943 371 448 zenbakira bazkarian parte hartzeko.

LANAK

Kalea itxia Zabaleta auzoan

Zabaleta Berriko urbanizazio lanak direla eta, hurrengo astetik aurrera Larrekoetxe bidea itxita egongo da Zabaleta baserria eta Larreko etxearen artean.

Hori dela eta, lanek irauten duten bitartean, Buenos Aires aldapa eta Illarraltzuetan bidearen arteko errepidea zirkulazio bi noranzkoetan erabiliko da.

Lasarte-Oriako Udaleko alkatetzak barkamena eskatu nahi du honek sortu ditzakeen eragozpenengatik.



ISTRIPUA

Kamioi batek karga galdu zuen N-1 errepidean

Astelehen eguerdian, kamioi batek istripua izan eta karga galdu zuen N-1 errepidean, Oztaran auzo pareko zubian.

Kamioiak garraiatzen zituen garbigailuak azpian dagoen Oztaran auzoko errotondara erori ziren. Eskerrak momentu horretan ez zela kotxerik, ez oinezkorik igaro zubi azpitik. Gidaria, ordea, ospitalera eraman behar izan zuten.

Auto ilara handia sortu zen N-1 errepidean istripuaren ondorioz, eta arratsalde osoan arazoak izan ziren.

MUSIKA ESKOLA

Goiatz Irazabal Txistulari Gazteen lehiaketan

Bihar, eguerdiko hamabietan, Udal Musika Eskolako Goiatz Irazabal Rodriguezek Hernanin antolatutako VI. Txistulari gazteen lehiaketan parte hartuko du. Goiatzek 13-16 urte bitarteko mailan lehiatuko da eta Pablo Sorozabalen *Donostia* fandango-boleroa joko du txistu eta danbolinarekin.

EZBEHARRA

Buruntzara irteera goibeldu zen igandean

Arrieskalleta elkarteak Buruntzara irteera antolatutako pasan den igandearako. Eguraldia lagun zutelako 40 lagun inguru abiatu ziren goizeko 09:00etan Buruntzara mendira. Ondoren babarrun jana egiteko asmoa zuten elkartearen bertan.

Baina Buruntzako gurutzera iritsi orduko, Jesus Casado herritarra ondoezik sentitu eta mendian bertan zendu zen.

Arrieskalleta elkartearen lagunek, lerro hauen bidez, bere dolumina adierazi nahi diete senitarteko eta lagunei.

2009ko Errenta Aitorpen kanpaina abiatu da

Kobratu edo ordaintzea egokituako zaión, ziurrenik batek baino gehiagok datozen asteotan egingo duen ikuluetako bat izango da. Errenta Aitorpena egiteko garaia heldu baita. Alpatu galdearen erantzuna laster jakingo dute autoliquidazio proposamena jasotzen dutenek. Edozein kasutari, ekainaren 25era arte luzatuko den aurtengo kanpaina abiatu berri da.



Buruntzaldeko udalek, ureak daramatzate herriarrak. Errenta Aitorpena euskaraz egitera sustatzen (irudiaz marrazuz).

Apirilaren 20az geroztik Ogasunarekin gure aditu-kontuak zertan diren argitzen hasleko garaian gaude. 2009ko ekitaldiari dagokion Errenta Aitorpenari lotutako kanpaina martxan da pasa den asteartetik. Zenbait berrikuntza diktatza aurren.

Egin, hautazkoa izan arren
Badira Errenta Aitorpena egitera derrigortuak ez dauden herriarrak. Horregatik edo, askok aitorpena ez egitea erabakitzen dute. Aldiz, kasu honetan, izan ere lan egiten eta jaso-tako diruan atxikipena izan duenari aitorpena egitea aholkatzen zaito. Hartara, Ogasunetik dirua jasotzea egokitu zaito, gutxieneko sarrearrak mugara aliegatu ez denari.

Edozein kasutan, aitorpena aurren egin nahi edo behar dutenek, lehen zeresainteko bati zaien inguruko informazioa lortzea izango da. Horretarako bide desberdinak daude aurrerari. Pasahtut operatibo batekin izan liteke norbire diru-sarrera, gastu, atxikipen eta abarren berri. Pasahtutza Internet bidez eska liteke eta Ogasuneko bulegoetan jaso. Edota zuzenean, alpatu bulego-eta ira joanda. NAN originala eta haren kopia besterik ez dira onartzen. Internet bidez eskatuta edota 902 100 040 telefono zenbakira deituta ere, bulegoetara bidaliako digute posta bidez. Aitorpena finantza entitate bidez egin nahi duenak, aitorpen eredu bat bete eta entitateari zerga informazioari buruzko datuen berri emateko aukera eman ditzateko herriarrak.

Zergabidea programa
Aurtengonako azpimarratuko moduko bi berrikuntza daude. Batek, Ondarearen gaineko Zerga indargabetu dute eta ondorioz, ondare-

ren aitorpenik ez da aurkeztu behar aurren. Bestalde, aitorpena Internet bidez egin ohi duenak ohar-tutako denez, Zergabidea izeneko errenta programa bat da bera erabili ahal izango du. Alpatu moduan Internet bidez soilik, desagertu baita diskete bidez egiteko aukera. Hainbat eredu integratzen ditu, honakoak: eredu informaziozale zergaren. Ogasuneko web orrialdean eskura liteke Zergabidea programa.

Errenta euskaraz, nik ere bai
Ogasunarekin dugun hitzordua, eta Errenta Aitorpena zer hizkuntzatan egin, norbere aukera da hori. Euskaraz egin nahi duenak kontuan hartu

Buruntzaldea.org
Buruntzaldeko udalek ureak daramatzate, herriarrak Errenta Aitorpena euskaraz egitea sustatzen. Baiarako udalerrietan pikkanaka gorantz doa, aitorpena alpatu duen herriarrak kopurua %50 ingurukoa izan daiteke. Udalerrietan, aitorpena %10 euskaraz aurkezteko aukera izango da. Buruntzaldeko eskualdun hiru mila herriarren muga gainditu zuten. 3.507 aitorpen bideratu ziren euskaraz. Buruntzalde osoan aurkeztutako %9,21. Herriak herri dezaketena. Buruntzaldeko udalek alor honetan burutu ondoren 701 (%8,59), Astigarragan 229 (%8,95), Hernanin 1.271 (%12,09),

-Apirilak 14-maiatzak 7: Autoliquidazio proposamenak onartzen.
-Apirilak 19-ekainak 11: Errenta mekanizatutarako hitzordua eskatzea. Telefonoa: 902 100 040 edo gipuzkoa.net/ogasuna.

-Apirilak 20-ekainak 25: Aitorpenak aurkezteko opea.
Mekanizatuta egiteko bulegoak **Donostian (Anso Jaktuna, 9):** Usurbilgo herriaren.
Hernanin (Lasunberri 8-9): Andoain, Astigarraga,

“Ondarearen gaineko zerga indargabetu dute eta ondorioz, ondarearen aitorpenik ez da aurkeztu behar aurren”

errenta euskaraz!



nik ere bai!

2009ko errenta aitorpena euskaraz egin dezakezu! zurekin aurren Buruntzaldean %15 izatera iritsiko gara!

Kiroletako oharrak

Ges aseguruak beste urte batez izango da Jubenilen babesle

Herriko areto-futboleko eta Gomazko pala txapelketak finalurrekoetan

Jarduera berezia igerilekuan

Apirilaren 24an, larunbata, goizeko 11:00etatik 12:30era, Kiroldegiko igerileku handian 3 kale okupatuta egongo dira eskola-kiroleko txapelketa batengatik; igerilekuaren beste 3 kaleak erabiltzaileentzat libre egongo dira.

Egun berean igerileku txikia okupatuta egongo da ikastaroak eta eskolumeen jolasak direla eta, goizeko 10:00etatik 12:30era.



Errugby eskola

Beltzak-Ostadar Errugby eskola martxan jarri zen otsailan. Geroztik, igandero, goizeko 09:00etatik 10:30 bitartean entrenatzen dute Michelinek, beti ere, partidarik ez badago.

Errugby eskolako antolatzaileek Lasarte-Oriako gaztetxoak gonbidatzen dituzte ekimen honetan parte hartzera.

Ostadar Kirol Fundazioak eta Lasarte-Oriako Ges Aseguruak beste urte baterako hitzarmena sinatu dute.

Era honetara, Ges Aseguruak bost urte daramatza Osatdarreko gazteen taldea babesten, Ostadarreko Jubenilen Ohorezko Mailako taldea, hain zuzen ere.

Ostadarreko ordezkariak pozik agertu dira sinatutako hitzarmen honekin, "Ges Aseguruak eskaintzen digun laguntza ezinbestekoa da. Izan ere, Ges gazteen taldeko babeslea izateaz gain, aldi berean, Ostadarrek burutu nahi duen kirol egitasmoari ere laguntzen baitio."

Era berean, "modu batera edo bestera, herriko hainbat enpresa eta merkatarik ari zaizkigu laguntzen. Hauei ere eskerrak eman behar dizkiegu gure egitasmoan sinisteagatik eta urterik urtera gurekin



Aldon Mujika kapitaina eta Mikel Martija entrenatzailea Kristina Arteaga Ges Aseguruetako arduradunarekin.

jarraitzeagatik," adierazi dute Ostadarreko arduradunek.

Finalurrekoak

Bestalde, Ostadarrek antola-

tzen dituen Herriko areto-futboleko txapelketa eta Gomazko pala txapelketako finalurrekoak jokatuko dira asteburu honetan.

Areto-futboleko txapelketan, igande goizean jokatuko dira finalurrekoetako Izkiña-Ainhua eta ISU Leihoak-Izarra joaneko partidak kiroldegian.

Era berean, kontsolazio eta ligaxkak ere, aurrera darraite eta larunbatean izango dituzte norgehiagokak goiz eta arratsaldean.

Honetaz gain, Gomazko pala txapelketako ere fase berria hasi dute, finalerako bidea. Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga, Iñaki Lizaso eta Joxerra Alzibar, Bernaitz Odriozola eta Santi Martín eta Iñigo Huegun eta Haritz Urdanpilleta bikoteek finalurrekoak jokatuko dituzte, igande goizean Michelingo frontoian. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 24

10:30ean, Ostadar-Mondragon (Emakumezkoen KDT F-II, kopa) Michelinek.

10:30ean, Eibartarrak-Ostadar (Partehartzte infantilak, kopa) Unbe Sup., Eibarren..

11:00etan, Lengokoak-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Cesar Benito, Donostian.

12:00etan, Texas Lasartearra-Segura Goierri (I. Jubenila, kopa) Michelinek.

15:30ean, Ostadar-Usturibil (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinek.

16:30ean, Real Sociedad-Ostadar (Infantil txikiak, txapelidunen fasea) Zubieta, Donostian.

17:15ean, Ostadar-Anaitasuna (Jubenilen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinek.

18:30ean, San Patricio-Ostadar (I. Jubenila, kopa) Zubieta, Donostian.

Igandea 25

10:30ean, Ostadar-Ekintza (I. Kadetea, igoera fasea) Michelinek.

11:15ean, Sporting de Herrera-Ostadar (Alebinak, txapelidunen fasea) Herrera, Donostian.

15:00etan, Zestoa-Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Iraeta, Zestoa.

18:15ean, Gure Txokoa-Osta-

dar (Erregional Gorena) Matxada, Bera Bidasoan.

FUTBOLA 7

Igandea 25

11:00etan, Movimiento Sismico-Spartak de Obelix. (III. maila) Ugaldetxo, Oiartzunen.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 24

18:00etan, Santurtzi-Aldatz H.K. Santurtziko Udal kiroldegia, Santurtzin.

HERRIKO TXAPELKETA

Kontsolazioa

Larunbata 17

11:00etan, Obelix-Okela.

12:00etan, Goiz Argi-Siglo XX

Ligaxka

15:00etan, Viña del Mar-Morrison

16:00etan, Naiban-IOB H.K.

Finalurrekoak, kiroldegian

Igandea 18

10:30ean, Izkiña-Ainhua.

11:30ean, ISU Leihoak-Izarra

SASKIBALOIA

Larunbata 24

16:00etan, Jalai-Leihoak Zast (Gizonezko seniorra) Kiroldegian.

JUDOEA

Larunbata 24

Goiza osoa, LOKEko Leire Zubizarreta judokak 23 urte azpiko Espainiakoa txapelketan parte hartuko du Getafen, Madrilan.

ATLETISMOA

Igandea 25

Goiza osoa, Landaberriko neska taldeak infantil mailako Gipuzkoako eskolarteko txapelketan parte hartuko du, Arrasaten.

GIMNASTIKA ERRITMIKOIA

Larunbata 24

12:15ean, LOKEko eta AKEko gimnastek erakustaldia egingo dute, Elgoibarren.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 24

16:00ean, Bazpi txirrindularitza eskolako jubentilek XXX Elgoibarko Hiria sarian parte hartuko dute, Elgoibarren.

16:30ean, Bazpi txirrindularitza eskolako gaztetxoek Hondarribia sarian parte hartuko dute, Hondarribian.

Igandea 25

8:30ean, Ostadarreko ziklotu-

rista taldeak Errezilera egingo du irteera.

PILOTA

Ostirala 23

22:00etan, Sorraluze-Lasarte-Oria (Herriarteko txapelketa), Sorraluzen.

Larunbata 24

15:30ean, EPLE-Intza (Eskuz banaka, seniorra) Fanderia, Errenterian.

16:00etan, Intza2-Euskal Giroa (alebinak 2. urtea) Herrera, Donostian.

16:00etan, Intza I-Oiarpe 4 (alebinak 2. urtea) Andoingo eskola, Andoainen.

16:00etan, Gazteleku2-Intza I (Infantilak) Zestoa.

16:00etan, Sendi Ekintza-Intza2 (Infantilak) Urnietan.

PALA

GOMAZKO PILOTA XVI. TXAPELKETA

Michelingo pilotalekuan

Igandea 25

10:30ean, Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga-Iñaki Lizaso eta Joxerra Alzibar

11:15ean, Bernaitz Odriozola eta Santi Martín-Iñigo Huegun eta Haritz Urdanpilleta

SQUASH

18:00etatik aurrera, kiroldegian Ostirala 23

Iker Serrano-Mikel Zugasti Raul Mateos-Patxi Delgado

Astelehena 26

Javierr Serrano-Agustin Erkizia Aitor Artola-Alberto Udabe

Asteartea 27

Jose Ramon Urruzola-Kinin Calvo Iñaki Garcia-Xabi Amiano

Asteazkena 28

Fernando Montero-Iker Cañedo

Osteguna 29

Emilio Hernandez-Iker Serrano Oswal Cañedo-Raul Mateos

BOLA-JOKOA

Igandea 25

Egun osoan, Ostadarreko bola joko taldeak Gipuzkoako kopa txapelketan parte hartuko du, Ereñotzun.

ESKOLA-KIROLA

Larunbata 24

11:00etan, LH3 eta LH4 mailako Igeriketa Topaketa, kiroldegiko igerilekuan.

Egunero

Erakusketa

SU LAZTANAK, Garikoitz Lasaren egurrean egindako pirograbatuak ikusgai Jalgi kafe-antzokian.

Erakusketa

PINTOREAREN ESTUDIOKO IKASLEEN erakusketa. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 23

Kontzertua

Zumaiaiko SAN PEDRO ABESBATZAREN emanaldia Danok Kidek antolatzen duen V. Musika Topaketen barruan. Brigitarren komentuan, 19:30ean.

Larunbata, 24

Antzerkia

TXIRULARI MAJKOIA haurrentzako antzezlan Teatro Paraiso taldearen eskutik.

BERTAN BEHERA GERATU DA



Folk eta pop estiloak Jalgin gaur

Kontzertua

URKO MENAIAREN kontzertua, folk eta pop estiloak jorratzen ditu. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.

APRILAREN 16AN, OSTIRALA

JALGIN 21:30EAN

EUSKARAZ

Igande, 25

Zinea

LILY, LA PRINCESA HADA haurrentzako filma ikusgai. Sarrera 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

Osteguna, 29

Zinea

CELDA 211 filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera 4,15 euro. Kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ

Ostirala, 30

Dantza

HNUY ILLA dantza ikuskizuna Kukai Tanttaka taldeen eskutik. Sarrera 6 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan. EUSKARAZ

Kontzertua

CESK FREIXAS bakarleri kataluniarrak eta Makulu Ken talde lasarteoriatarrek kontzertua eskainiko dute Xirimiri elkarrean. Xirimiri Elkarrean, 22:00etan.

Eskutitzak

Gure herrian ere, zaharrak berri

Joan den astean, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako gonbidapenari erantzunez, Zure Herrian, izeneko ekitaldira herritar mordo bat inguratu ginen Manuel Lekuona Kultur Etxera.

Gure herrian, gizarte mailan hainbat ekimenetan lanean ari diren hainbat herritar bildu ziren bertan.

Diputatu nagusiak aurkeztuta, Foru Aldundiak eskualde honetan egiten ari den eta etorkizunean egiteko dauzkan asmoak entzun, zetozkien azalpenak eskatu, eta kezka, kezka eta ekarpenak azaldu zituzten bertaratutako hainbat herritarrek.

Baina, ni, gaur ez nator berri hori ematera, ni asko harritu ninduen beste gertakizun bat baizik.

Jende artetik, dozena bat herritarrek (Zubietako bat tartean zela) parte hartu zuten diputatu nagusiarekin izan zen elkarrizketa edo solasaldian eta hemen azaltzen dut nire gaiaren muina; alegia, hitza hartu eta elkarrizketa edo solasaldian parte hartu zuten guztiak gizonetako izan zirela.

Zergatik gertatu zen hori? Hori al da, sexu aldeetik neurtuta, Lasarte-Oriako gizarte lanean (gehienak muxu-truk) ari diren bizilagunen ordezkaritza egokia? Ez horixe.

Nik, han ikusitakoa azaltzen dut, eta hori ikusiko zuten, bertan zeuden beste guztiak ere, nahiz denok jakin, gizarte lanean, boluntarioek dohaineko lanean somatzen dutena oso bestelakoa dela, eta hura guzti errealtate errata izan zela. Zergatik agertu ziren pantailan gizonetako bakarrik?

Sebastian Kerejeta

Andres Ayastuy-ri

Andres: Ez duzu bizitza zoriontsurik izan. Ahaideek zure mina handitu zuten. Baina han, beste munduan, zure amaren altxoan Jaungoikoak min hori poz bilakatuko du. Agur gizon ona

R. Izagirre

ERREDAKZIOAN ITZULIA

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Oharrak

Langilearen eguneko manifestazioa

Lasarte-Oriako CNT-kideek deialdi honen bidez, Lasarte-Oriako langileria animatu nahi dugu Maiatzaren leheneko manifestazioan parte hartzea. Manifestazioa Donostiako Bulebarretik aterako da 12:00etan eta ondoren mitina egingo da.

Era berean, 14:00etan, bazkara antolatu dugu. Parte hartu nahi baduzue deitu 943 472 687 zenbakira, astearte, azteazken edo ostegunean 19:00etatik 21:00etara.

Udako Txokoetan begirale izateko

Haurrak gustukoak dituzten gazte xoei Udako Txokoetan begirale izateko aukera eskaintzen die Ttakun Kultur elkarrekin. Apirila eta maiatza bitartean zabalik izango da begirale moduan aritzeko izena emateko epea. Begirale izateko baldintza bakarrak 18 urte baino gehiago izatea eta eskara maila txukun bat edukitzea da. Begiraleak aukeratzeko proban, begirale titulua, esperientzia eta hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak edukitzea hartuko dira kontu-

tan eta puntuazio bidez aukeratuko dira.

Izen-ematea Ttakunen egin behar da (Geltoki kalea 4) eta informazio gehiagorako deitu 943 371 448 telefonora.

Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarrekin antolatzen duen marrazketa eta margo eskolan plazak badaude. Izena emateko jo kulturetxeko 2. solairura 18:00etatik 19:00ak bitartean, astelehenetan, ostiraletan eta larunbat goizetan 09:30etik 11:30era.

Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkaitela jasota, urrezko eskumuturrekoa, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilika-ria, Festina markako eskumuturreko erlojua, Suzuki markako motozikleta kaskoa, zilarrezko belarritakoak, betaurreko graduatuak eta betaurreko graduatuak bere estutxean.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-

beteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Sorosle ikastaroa Usubilen

Maiatzaren 3tik 21era sorosle ikastaroa antolatu du DYA erakundeak Usubilen. Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara eta astelehenetik ostiralera izango da ikastaroa parrokiko lokalean (Kale Nagusia 25). Informazioa eta aurreinskripzioa 943 464622 telefonon.

60ko kinto afaria

Dana Ona jatetxean ospatuko da maiatzaren 29an 60ko kintoen afaria. Izena emateko azken eguna maiatzaren 5ean izango da. Pertsona bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu eta diru hori Kutxako 21010048200012568275 kontuan sartu behar da. Informazio gehiagorako interesatuek 943 370980 telefonora deitu (Maria Luisa).

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4

Tel.: 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



IZARRA

BITXITEGIA



Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384 • Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945



www.izarrabitxitegia.com

IPARJOY[®] A.I.E.

